



Arizmendiarrietaren
Lagunak Elkartea

ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEAREN 2019ko BATZAR NAGUSIA

Atzo, maiatzak 9, gure Batzar Nagusia egin genuen. Han, Miguel Angel Laspiurrek, Elkarteko Lehendakariak, 2018ko Memoria hizpide hartuta, MONDRAGONen eta ALERen arteko lankidetzaren esparrua nabarmendu zuen; izan ere, horren baitan, kooperatibarekin lotutako prestakuntza eta hedapenari laguntza emateko eta gizartea eraldatzeko lankidetzak egin dira. Lehendakariak beste gertakari garrantzitsu bat ere nabarmendu zuen: Legez Besteko Proposamen eta Mozio bana osatu dira, enpresaren partaidetza eredu inklusibo bat sustatzeko asmoz. Bi horiek Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroakoan onartu dira, eta Lehendakariak nabarmendu zuen proiektuen lidergoa soil-soilik Elkartearen esku geratu dela. Bide beretik, komunikazioaren alde egindako apustu irmoa eta Arizmendiarrietaren pentsamenduak eta balioak zabaltzeko egindako lana ere aipatu zituen.

2019ko apustuari dagokionez, Elkartearen asmoa da inguru osoan Arizmendiarrietaren pentsamendua, balio humanistak eta gizarte ideiak zabaltzea, haren balio zein pentsamenduen aplikagarritasuna, erabilera eta pedagogizazioa hedatuz eta barreiatuz; bai eta proposatutako politika publikoen ezarpenari jarraipena egitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako eragile sozial, ekonomiko eta politikoei enpresaren partaidetza eredu inklusiboaren berri emateko plana garatzea ere. Eta, horretaz gainera, MONDRAGONeko estamentuekin lankidetzan eta komunikazioan jarraitzeko plana aktibatzea.

Batzarra amaitu aurretik, Zuzendaritza Batzordea berritu zen. Kide berriak sartu dira, eta horiei esker, esperientzia eta gaztetasuna uztartu nahi dira, gazteengana gehiago hurbildu ahal izateko.

Batzarra amaitu ondoren, Elkarrekin aitorpena egin zuten Alfonso Gorroñogoitiari eta Jose Mari Ormaecheari, balio kooperatiboaren defentsan eta horiek garatzeko egindako lanagatik, eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteko ohorezko bazkide izendatu zituen. Ekitaldian izan ziren Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olano eta Arrasateko alkate Maria Ubarretxea.

Aitorpen ekitaldia amaitu ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko katedradun eta Cuatrecasas bulegoko kontseilari Juanjo Alvarezek hitzaldia eman zuen: "Zientzia, Gizartea, Prestakuntza: Balioak eta Erantzukizuna".